

LIBURU ESKAINTZA

2025ko Negua




Garena ikasteko
para entendernos
pour se comprendre

Liburuak irakurriz eta irakurriz dena ikasten zela uste zen antzina. Gaur egun badakigu den-dena ez dagoela liburuetan; euskara ikasteko ere liburuak baino gauza gehiago behar ditugu, bai. Halere, liburuak hortxe jarraitzen dute eta, guzti-guztia ekarri ez arren, kontu ugari aurkituko dituzu.

Batzuek euskara ikasten lagunduko dizute: euskaraz idatzitako istorioek, historiak eta poemek. Horietan, benetako eta fikziozko euskaldunak zuri mintzatuko zaizkizu liburuetako hitzen bidez, eta irakurriko dituzu hainbat izen, aditz, berba, pasarte eta paragrafo zuretzat patxadaz prestatuak, patxadaz irakur ditzazun.

Beste batzuek, berriz, euskara ikasten ari zarela ahantzaraziko dizute. Ezagutuko dituzu lekuak, pertsonak, istorioak eta sentimenduak: poza, beldurra, barrea, harridura... Murgilduko zara letren itsaso batean, eta hantxe gozatuz euskara ikasiko duzu euskara ikasten ari zarela ahaztuta.





MIREN ETA ERROMANTIZISMOA

Ramon Saizarbitoria

Miren eta erromantizismoa, Ramon Saizarbitoria: Ikasgelara mutil marokoar bat iritsi da. Said mutil azkarra eta atsegina da, eta gainera guapoa. Bigarren batxilergoko neska guztien begiak harentzako dira. Klarak bereganatu du mutila. Maitemintzea (eta maitatzea) sakrifizio eta sufrimenduarekin batzen dituen estereotipo patetikoenean elikatzen da Klara. Maitasun erromantikoa, zenbat frustrazioren iturri!

Mirenek ez du gustuko guapoa delako, edo ez horregatik bakarrik. Said pertsona inteliggentea eta adeitsua da, eta gainera atsegin zaio. Pertsona sentibera iruditzen zaio Mireni, eta hori bai estimatzen duela berak, Klararen konbentzionalismo klasista eta arrazistatik urrun. Mirenen hiztegian, ordea, zintzotasuna, laguntasuna, tolerantzia eta askatasuna esangura handiko balioak dira, eta bere egiten du Literaturako irakasleak iradokitakoa, alegia, batzuetan ez dagoela beste erremediorik, baina ez garela jaio sufritzeko. Bere alde du Erromantizismoaren alderik onuragarri eta ederrena. Daukaguntzua (eta garena) hobetzeko errebeldia eta aspirazioa. Maitasunaz eta bizitzaz ari zaigu nobela; eta bide horretan sentsibilitatearen heziketak (eta arteak) eskain dezakeenaz.


Ramon Saizarbitoria, behin berriz, maisutasun narratibo eta humanoaren erakusgarri bikaina eskaintzen dio irakurle gazte eta helduari.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 240

Prezia: 18 - 15,30 €




SHERLOCK HOLMESEN ISTORIOAK I

Arthur Conan Doyle

Maila: B1

Orr: 70

Prezia: 7 - 5,95 €



SHERLOCK HOLMESEN ISTORIOAK I I

Arthur Conan Doyle

Maila: B1

Orr: 100

Prezioa: ~~7,65~~ - 6,50 €



ZORIONA, EDO ANTZEKO ZERBAIT

Karmele Mitxelena

Mediterraneora etorri da emakume alargundu berria. Doluaren zamak atzean utzi nahi lituzke, itsaso bareago honetako ur urdinetan jostatu. Bizitzari berriz egin irribarre, bizitza berri bati esan ongi etorri.

Protagonista bera da kontatzailea, eta idazkera dotore bezain biziz, pausatu bezain adierazkorrez doa kontatzen gogoaren zirrikituetan gordetzen dituenak, baita bere egunerokoan gertatzen zaizkionak ere.

Bidaia fisiko eta psikologiko bat dakarkigu eleberri labur eta hunkigarri honek, betiko gai giltzarrietan pausalekuak eginez: maitasuna, heriotza, seme-alabak... mundu honetako gure igarotzeari zentzua ematen diotenak.

Maila: B1/B2

Urtea: 2024

Orr: 116

Prezioa: ~~12,50~~ - 11,50 €



"BIZITZA BATEN TXATALAK"

Onintza Enbeita Maguregi

Hamabi gaineko eta hamabi azpiko izan ziren Feli Madariagaren arreea. Haiek hartuta joan zen Muxikako Igertu baserrira. Hortik aurrera bizitza ederra eraiki zuen Julian Gabikaetxebarria senarrarekin eta bien artean izan zituzten hiru alabekin. Laurogeita hamar urtetik gora, oraindik ere hezurrek uzten diotenean jorran egitera joaten da ortura. Baserriko lana gogorra omen da, baina lurrak bizitzeko behar izan duen guztia eman dio Feliri. Gure amonen, birramonen edo gure amen bizimodua kontatzen da hemen andre baten ahotan. Baserrria bere horretan, erromantizismorik gabe.

Maila: B2

Urtea: 2025

Orr: 132

Prezioa: ~~15~~ - 12,75 €



KOADERNO HANDIA

Agota Kristof


Ikasketa-prozesu baten lekuko egiten gaitu Koaderno Handiak. Pertsonaia nagusien, bi anaia bikien, ikasketa-prozesua da. Hirurogeita bi atal laburretan zehar, zer ez digute kontatzen. Eta nola. Liburuak jakin-mina pizten du. Erakarri eta berarekin eramaten du irakurlea liluratutik. Edonor harritzen baitu horrelako gertaera lazgarriak hain xalo kontaturik entzuteak. Xalotasunaire hori lortzeko, Agota Kristofek haurren idaztanka antzeratzen du. Irakurketa amaitu eta gero, liburu itxi eta gogoetatsu geratuko gara, irria ezpainetan eta galderaren bat buruan jauzika. Gaiztoak eta ankerrak al dira? Zer da Ongia?; zer Gaizkia? Non ditu Etikak mugak? Nork du munstro-izaera, mutikoez ala inguruan duten gizarteak? Besteaz gabetua izan den baten errailetako garrasia ote da Koaderno? Umore beltz ederrez zipriztinduriko garrasia betiere. Liburu apala, xumea; eta, bere xumean, sakon ere.

Maila: B2

Urtea: 2022

Orr: 200

Prezioa: ~~14,90~~ - 12,70 €



AROTZAREN ESKUAK

Alberto Ladron Arana

la ezagutzen ez zuen aitonak herentzian mendian galdutako etxe bat utzi diola-eta, hara doa Ane Duhalde, ordura arteko bere bizimodu grisa eten nahian. Etxean, baina, deskubrimendu lazgarri bat egingo du, aitonaren iraganaz galdetzeraz behartuko duena. Misterioaren sokak Frantziako Erresistentziaraino eramango du, II. Mundu Gerraren garaian berrogeitaka urte beranduago Europako hainbat lekutan gertaturiko hilketa sorta izugarri bat ere harrapatzen du, eta bere burua arriskuan egon litekeela sentituko du azkenik. Bordeleko polizia erretiratu batekin saiatuko da Ane korapiloa askatzen, eta beste horrenbeste egitera gonbidatzen gaitu Alberto Ladron Aranak, suspensez eta ustekabez beteriko eleberri honetan.

Maila: B2/C1

Urtea: 2006

Orr: 252

Prezioa: 26 - 22,10 €



ZAHARTZAROAREN MAPAREN BILA

Arantxa Urretabizkaia

“Zahartzaroaz doa liburu hau, batez ere muga guztiak kontuan izanda ere maila handi batean geure buruaren jabe izan nahi eta ahal dugun zaharroi buruz, ez buruak edo gorputz osoak kale egin ondorengo zaharrei buruz. Erdi Aroko mapetan, mapagilearentzat ezezagunak ziren lurraldeak seinatzeko, hic sunt dracones jartzen zuten, hemen herensugeak daude. Terra ignota edo terra incognita ere esaten zitzaion. Bada, belaunaldi oso bat abiatu da herensugez jositako lurralde ezezagun horietan, maparik gabe, baina iparorratz bat eskuan. Autonomia da iparreko izarra, zaharrok pertsona orok dituen eskubideen jabe garel”

Maila: B2-C1

Urtea: 2025

Orr: 112

Prezioa: 16 - 13,60 €



MONOGAMOAK

Iñigo Astiz

Opari osagabe baten oroitzapena, hildakoen ilarak eta hiltzaileenak, Lizasoko komuna eta haren itzalean hartutako bainua, biribilguneen utopikoak, gazte bat pintadak garbitzen, andre bat katu baten marruen eta amaren azken egunen artean, sasoz kanpoko norbaiten itzulera, infinitura multiplikaturako tximinoak, balizko pailazo bat, txanpon-makinen zarata eta hondoko konplizitatea, une batez den-dena geratu uste izan zuen isiltasun bat.

Giroz, garaiz eta tonuz, eremu zabal bat bildu du Iñigo Astizek bere lehen narrazio bilduman. Aro bakoitzean jendeak elkarri eusteko botatzen dituen sokeaz ari da, komunikazioaz eta haren faltaz, eraikuntza historiko, politiko, kulturalen alde makurraz zein absurdoaz. Argitasunez eta ironiaz, soiltasunez eta saturazioz, bizidun ororen orekari urratsak datoz kontakizunotan.

Maila: C1

Urtea: 2024

Orr: 160

Prezioa: ~~17,50~~ - 15 €



HETERO

Uxue Alberdi Estibaritz

Araua eta arrakala. Bien arteko tentsioan ageri zaizkigu ipuin hauetako protagonistak. Emakumezkoak dira ia denak, eta gizonez ari dira, nagusiki. Haiek euren gorputzetan, memoria afektiboan eta egunerokoan utzitako arrastoez. Gizonekiko espektatibez eta dezepzioez: unean bertan egin eta esan ez ziren horiez.

Aitak —odolekoak, kulturalak, politikoak—, maitaleak, adiskideak ageri dira kontakizunotan. Tesi zuzendari, editore eta militante “idealizatuak”; hiru laguneko gorputz bakar bat frenorik gabe aldapan behera; Zarautz, Elgoibar, Kuba —“desira aplastante bat”—; whatsapp bidezko literatura lezioak; ezin bete diren promesak urpean eta naufragatzen utzitako bizi-puskak; hiltzen jarraitzen duen aita bat, alargun igerilari bat. Tarteke jendearen presentzia aztoragarria eta hizkuntzaren dardara bizia.

Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu ditu Uxue Alberdik bere hirugarren narrazio liburuan.

Maila: C1

Urtea: 2024

Orr: 160

Prezioa: ~~17,50~~ - 14,90 €



FRANCESCO PASQUALEREN BOSGARREN ARIMA

Unai Elorriaga

Zerriak, heriotza goiztiarregiak, gogotik joaten ez diren umetako lagunak, erdiminak, esnea, gurdiak, askotariko gaitzak eta ur-azalean barreiatutako partiturat. Irudi horiek gailendu ziren, besteren artean, Francesco Pasqualeren egunetan.

Saprin jaio zen, Italia hegoaldean, eta Richard Wagner, Robert Schumann eta Giuseppe Verdi konpositoreekin konpartitu zuen bere mundualdiaren parte handi bat. Galdaragile familia bateko semea, orduko giro politikoan nahasi, eta Mediterraneo itsasoaz bestaldera jo zuen, harik eta Bermeora heldu zen arte.


Haren arrastoari segika, XIX. mendeko Europa mendebaldean zabaldutako giza mapa bat eskaintzen du Unai Elorriagaren zazpigarren nobelak. Beregainak diren atalekin eraiki du kontakizuna idazleak, elkarren segidan jarrita oihartzuna puskaz harago hedatzen dutenak; hitz lauz eta urarena halako musika itsaskorrez.

Maila: C1

Urtea: 2024

Orr: 216

Prezioa: ~~19~~ - 16,15 €



PUNTOBOBO

Itxaso Martin Zapirain

Ez da normala izango, esan zion medikuak haurrak urtebete zuenean. Jaio aurretik, ordea, Amak jakin bazekien barruan zeraman haurra ez zela besteak bezalakoa izango. Amak alaba etxean isolatu zuen, eta herritarren txutxu-mutxuak areagotu egin ziren. Hain zen estua bien arteko harremana, beste alaba baten jaiotzak ez baitzuen hori haustea lortu. Etxe heze eta ilunean sustraituko dira hiru emakumeak, asinkronia batean bizilagunen usteak inguratuta, sufrikario eta errezoen artean, patu ankerrari begira. Etxe horretan ez dira, inolaz ere, hain erraz ustelduko sekretuak. Emakumeen sufrimendua, osasun mentala eta familiarteko dinamikak ardatz ditu Puntobobo eleberriak. Itxaso Martinek ez du eufemismorik erabiltzen estilo intimista eta soil batez idatzi du istorio honen errealtate gordina. Ez da eleberri kostunbrista bat, protagonisten psikologian sakonduz idazleak ateratako argazki gardena baizik.

Maila: C1

Urtea: 2024

Orr: 184

Prezioa: ~~19,50~~ - 16,55 €



AZPIJOKOA AZPIAZUN

Iñaki Dorronsoro Maioz

Ate kolpeek esnatu ninduten. Enkajezko gortinatik sartzen zen argia ikusita, artean iluna behar zuen, farola bakartiak eta neoizko argiak bakarrik esna, kaleetan. Beno, eta atea gero eta gogorrago jotzen ari zen kondenatua».

Honela hasten da esku artean duzuen kasua. Lapurretak, ustelkeria, lagun baten hilketa eta galipotezko kafe bera, osagai nahikoa abentura ilunenetarako: zer ari zaio gertatzen Azpiazu auzoari?

Isiltzen ez dakien kazetari bat eta detektibe zaildua, hauexek izango dituzue bidaide. Miren eta Alfontso. Alfontso eta Miren.

Jantzi sonbreirua, hartu ohar bloka eta murgil zaitetze gurekin kale ilunetan, arratoien eta kriminalen artean, estolda zuloaren amaieraren bila.

Ongi etorri gure hirira, populazioa: atzokoa ken bat.

Maila: C1-C2

Urtea: 2025

Orr: 194

Prezioa: ~~21,50~~ - 18,25 €



TRIKUA ESNATU DA

Euskaratik feminismora eta feminismotik euskarara
Lorea Agirre Dorronsoro, Idurre Eskisabel Larrañaga


Gaur eta hemen emakume izatea eta euskaldun izatea bazterreko izateko bide dira oraindik. Prestigioaren, pribilegioen eta eskubideen banaketak osatzen duen jendarteko botere sarean jokoan daude euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna. Biak dira menderakuntzaren alaba, eta, horregatik, biak dira indibidualki zein kolektiboki ahalduzko eta boteretzeko lekuak, zein jendarte berdinzale eta bizigarriago baten alde eragiteko guneak. Gainera, hizkuntza eta generoa gurutzatu egiten direla badakigu, hizkuntza hautuak genero eraikuntzatik igarotzen direla eta alderantziz. Horrenbestez, euskalgintzaren eta feminismoaren arteko gurutzaketa eta aliantzarako bidea arakatzten da liburu honetan.

Maila: C1-C2

Urtea: 2019

Orr: 144

Prezioa: ~~13~~ - 11 €



GAZAKO EGUNEROKOA

Atef Abu Saef

Atef Abu Saif Gazan jaio zen, baina 2019an, Palestinako Aginte Nazionalak Kultura ministro izendatu zuenean, Zisjordaniara aldatu zen. 2023ko urriaren 7an, baina, atzera berriz Gazan zegoen. Bere karguarekin lotutako hainbat konpromiso zituen, eta pentsatu zuen konpromiso haiek eta senideak bisitatzea uztargarriak izan zitezkeela. Horregatik berekin eraman zuen Yasser, hamabost urteko semea. Egun hartan, infernuko ateak parez pare ireki ziren Gazan. Israelgo armadaren inbasioaren lehenengo momentutik kale gorrian, aita-semeek hara eta hona ibili behar izan zuten iheska, gainerako gazatarrek bezala, aterpe bila baino gehiago –Gazan aterperik ez dago-eta– herioari izkin egiten. Horrela, 85 egun, harik eta handik nola edo hala atera ahal izan zuten arte. Egun haietan, ikusitakoari eta oroz gain bizitakoari buruzko kronikak idatzi eta Gazatik mundura bidali zituen Abu Saifek, ahal bezala, adibidez, sakelakoaren mezu laburren bitartez. Gertatuaren lekukotasun aparta ematen duten kronika horiek, biltuta, GAZAKO EGUNEROKOA osatzen dute. Gazakoa sarraski telebisatua da, bai, baina lan honek berriz ere agerian uzten du ez dela guztiz egia irudi batek hamaika hitzek baino gehiago balio duenik.

Maila: C1-C2

Urtea: 2024

Orr: 252

Prezioa: 20 - 17 €



HARAGIA

Eider Rodriguez


Hamabi ipuinez osatua da Eider Rodriguezen bigarren narrazio bilduma hau, eta liburuko lehen kontakizunak eman dio izena: Haragia. Aiztoaren ahoan ebakitzeko kinkan diren pertsonaiak dituzu hemen: bizi-aldi berri baten atarian, harreman gatazkan gainbehera, urraduran expala sartuta. Narratzaileak gaiztoz eta krudel gobernatzen ditu gehienetan, gupida higatu batez noiztenka.

Maila: C1-C2

Urtea: 2007

Orr: 160

Prezioa: 15 - 12,75 €



AKABO

Laura Mintegi Lakarra

Gehiago jasan ez, eta, azkeneko, egin behar izan du: bi urteko harremanaren ostean, Sheenak Manu hil, eta izozkailuan gorde du. Horrela abiatzen da Laura Mintegiren nobela berria, azkena argitaratu zuenetik ia bi hamarkadara. Bikote harreman baten bilakaera ardatz hartuta, maitasunaz, identitateez eta traizioaz arituko zaizkigu pertsonaiak, hizkuntzalaria bata eta ingeniari informatikoa bestea. Oxford, Bartzelona eta Euskal Herrian barrena eramanen gaituzte, hizkuntza unibertsal baten ametsa ezinezkoa ageriko utziz, norberaren barneko eta kanpoko isiltasunak tartekatuz. Hizkuntzen artean ematen direnak bezain nabarmenak bihurtuko dira horrela beren arteko botere harremanak, ezin ulertuak eta asimetriak. Izan ere, Lacanek dioen bezala, maitatua urrunegi doanean bere buruarekiko traizioan eta engainu horretan gotortzen denean, maitasunak ez dio gehiago eusten.

Maila: C1-C2

Urtea: 2025

Orr: 380

Prezioa: ~~18,50~~ - 15,75 €



SAKELAKO BIHOTZAK

Julen Apella

Sakelako bihotzak eleberriak bi protagonista ditu, Jokin eta Felix, unibertsitateko azken urteetan dabilzan bi gazte, elkarren lagunak, baina aski desberdinak, izaeraz eta jatorriaz: arrazional eta hotza bata, langile-familiakoa; jendekoia eta zalapartaria bestea, burges etorkiduna. Bien ibilbideak, harremanak eta gorabeherak jarraituko ditugu, beren bizitzak markatuko dituzten hilabete batzuetan.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 240

Prezioa: ~~22,50~~ - 19,15 €



LAKIOA

Josu Goikoetxea Gezuraga

Amaginarrebaren etxean katakume jaioberriak akabatzeraz behartzen duten gizonaren paraderoa, parranda-gauaren osteko goizean lagun zahar-berri baten konpainian esnatuko den emakumearen harridura, guraso hilen baserrira itzultzen den droga-saltzailearen ibilerak, enpresako buruzagitza hartzeraz deitua den gazte arrakastatsuen larriminak...

Gai eta giro ugaritako bederatzi kontakizun bildu ditu Josu Goikoetxeak bere lehenengo narratiba-liburu honetan, Joseba Jaka bekaren laguntzaz. Estilo zein teknika desberdinak erabiliz eta ipuin bakoitzari dagokion tonu nahiz hizkera doia hautatuz, giza izaeraren misterio igarrezinak, gizarteko geruza askotarikoak eta harremanen korapilo zenbatezinek jartzen ditu agerian egileak ipuin sakon bezain eder hauetan.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 144

Prezioa: ~~15,50~~ - 12,65 €



ERROEN IZERDIA

Jone Bordato

Hiru ipuin luze osatzen dute liburu hau, triptiko baten antzera. Istorioetako bakoitza beregaina da, baina bada guztiak lotzen dituen hari bat ere: protagonistek iraganean finkatuak dituzte beren erroak, nortasuna moldatu dieten baldintza eta ezaugarriak, baina geroa zabalik da beti, antzaldatze eta bestelakotze prozesuak biziko dituzte pertsonaia nagusiek, bere buruaz jabetzera eta askeago sentitzera eramango dituztenak.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 192

Prezioa: ~~22~~ - 18,70 €



AURPEGIEN LAPURRA

Ibon Martín Álvarez

Aurpegién lapurra da Ibon Martinen azken eleberria euskaraz. Aurretik Pasaian eta Urdaibain bezala, Oñati eta Arantzazu ingurura eramango du Ane Cestero ertzaina krimen lazgarri batek: emakume bat agertu da hilda eta erraiak kanpora aterata, Oteizak zizelkaturiko apostolu bat balitz bezala. Ertzaintzako Inpaktuzko Hilketen Unitateak lan eta lan jardun beharko du susmagarri bila, susmoa baitute lehenengo heriotza bortiz horren ondoren beste zenbait gertatuko direla.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 512

Prezioa: ~~23~~ - 19,55 €



AIZKORAK ETA GUTUNAK

Edorta Jimenez

1828ko irailean, Bermeoko Almika auzoan, Agirretxu baserriko gizona Juan Ormaetxea desagertu egin da, eta hura hiltzearen susmagarri egin dituzte haren emazte Josepa eta alaba Maripepatxu. Ikerketak abiatu, gorpua agertu da, aizkorakadaz hila eta baserri aurrean lurperatua, eta ama-alabak atxilotu egin dituzte, bai eta epaiketarako bidean jarri ere. Eleberrri historikoa, kronika judiziala eta thrillerra konbinatu ditu egileak pasioz idatzi eta irrikaz irakurtzen den nobela hau ontzeko: ikerketaren joan-etorriak, pertsonaien gorabeherak, epaiketako xehetasunak eta erruduntzat jotakoan zigorrak: garrotez euskal lurretan exekutaturiko emakume bakarrenetakoa, besteak beste.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 168

Prezia: ~~17,50~~ - 14,85 €



BARNE ZERBITZUAK

Katixa Agirre

1937-1943 urteetara garamatza Katixa Agirreren nobela berriak. Garai latzak. Espainiako gerra aurrea, eta horren segidan II. Mundu Gerra: ehunka mila gizon lubakietan, itsasoan nahiz airean elkar hiltzen, baina hau ez da gizonen gerra-kontakizun ohikoa, sasoi ilun hartan bere bizia jokatuz beste askorenak salbatu zituzten emakume ausart batzuei buruzkoa baizik.

Izan ere, Euskadin gerra galdua zelarik, kartzela eta kontzentrazio-esparruetan preso zeuzkaten senar eta nebei bisitan hasi ziren eleberrri honetako protagonistak; espetxera mezu klandestinoak sartzen eta handik ateratzen segitu zuten gero, eta hortik abiatuta espioitza-sare zabal bat eratu zuten, erregimen frankistaren eta haren aliatu aleman eta italiarren xehetasunak ematen zizkiena alaitu frantses eta britainiarrei. Horra, Alava sarea zer izan zen.


Garai zirragarri batean kokaturiko eleberrri historikoa ondu du egileak, misteriozko thrillerraren teknikaz osatua eta irakurleari keinu egiten dioten hainbat jolasez aberastua. Irakurketaren plazer hutsa, zure zain.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 280

Prezia: ~~24~~ - 20,40 €



DENA ZULO BERA ZEN

Eider Rodriguez

Sute arrisku handieneko urte-sasoia da kanikula, uda-mina, eta hark ematen dio izena liburu honetako sei istorioetan lehenari. “Nor zara?”, galdetzen dio pertsonaietako batek besteari. “Ur asko eta beste elementu batzuk, zu bezala”, erantzuten dio.

Zerua argi egon arren, arnasa hartzea hain erraza ez den paisaia bat hedatzen da liburu honetan. Edertasunaren eta heriotzaren igurtzi amaigabea, bakea ez, egia aitazurto nahia da protagonista. Laguntasuna eta sentsualtasuna ageri dira, olatu artifizialak eta uharteak, doluen aurreko doluak, zorion moderatua, esku batzuek egin dezaketena baina sekula egingo ez dutena. Inoiz baino gorputzago sentitzen den jendea —hortzak, hazia, hezurrak—, eta, tarteka, inoiz baino hondakinago, zakarrak eta ametsak, biak, eguzkitara ateraz. Hendaian, Irunen, Hondarribian, Bordelen, Donostian, Koh Phanganen, Errenterian; elkar besarkatuta kabitzeko moduko zulo txiki batekin aski zatekeen. Gauza guztien azkenaldi bat —eta ondorioz lehena— Eider Rodriguezen bosgarren ipuin liburuan.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 196

Prezioa: 19 - 16,15 €



AZKEN BATEAN

Lourdes Oñederra


Elisa eta Elixabete ama-alabak dira, eta, iraganeko oroitzapen eta zaurien artean, elkarrenganako harreman konplexua eta familiako sekretu mingarrien baten itzala kudeatzen dituzte. Galdutako maitasun banaren ondoko bakardadeari eta memoriari aurre egiten dieten bitartean, identitateari, erruari eta distantzia emozionalari buruz hausnartzen dute. Euskadiren eta Amerikaren arteko bidaia batean, historiak lotura ikusezinak ehuntzen ditu, izan zenaren eta inoiz izango ez denaren artean harrapatutako bizitza markatzen dutenak. Eleberri honek begirada sakona eskaintzen die indarkeriaren zauri oraindik irekiei, baina baita oroimenari, familiari eta Euskal Herriko historia hurbilean emakumeak izan duen paperari ere. Pertsonaien bidez, isiltasunaren eta erruaren pisua arakutzen du, erakutsiz nola biktimak askotan ikusezin bihurtu diren eta nola gizarteak aurre egin dien indarkeriari, justifikazio ideologikoari eta adiskidetzearen beharrari. Hala ere, autorea ez da gai horretara mugatzen; ama-alaba harremanaren garrantzia eta gerraosteko emakumearen rola ere erakusten ditu. Ama figura klabe gisa agertzen da, euskal emakume askoren erresistentzia isila haragituz. Azken batean, identitateaz, denboraren joanaz eta duintasunaren aldeko borrokaz egiten du gogoeta eleberriak.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 160

Prezioa: ~~19,50~~ - 16,60 €



DÜSSELDORFEKO TXIBATOAK

Karlos Linazasoro

Düsseldorfeko txibatoak ahots berezi baten bidez kontatzen du Espainiako hegoaldeko auzo baten egunerokoa: kaleetako auto gaizki aparkatuak, parkeko iturri kutsatuak, manifestazio zaratatsuak, auzokideen utzikeria... Karl izeneko protagonista alemaniar zorrotz eta obsesibo baten begietatik ikusiko dugu guztia, legearen betearazle autoizendatu baten ikuspegi kementsu zentzu gutxikoa. Pasarte barregarriak eta mingarriak tartekatzen dira, bizitzaren miseria eta mundu groteskoa umore beltzaren lenteen bidez erakutsiak. Karlos Linazasorok etxeko markaz janzen du narrazio harrigarri hau ere, ironiaz eta ausardiaz, gogoeta sozial zorrotz eta gupidagabe batekin oreka bilatuan. Irakurlea barrez lehertzeraz eraman dezakeen bezala, deserosotasun eta tristura ere pizten ditu. Hizkera bizi-bizian eta tonu probokatzailan idatzia, liburu honek irakurlea behartzen du gizartearen ispilu distortsionatuan bere burua aurkitzera. Literatur jardun ausart eta zirikatzaile baten adibide garbia da.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 104

Prezioa: ~~18,50~~ - 15,75 €



PEDAGOGISMOAREN GEZURTAPEN BAT

Teresa Maldonado

Denok dugu garbi eskolak zer izan behar ez duen: instituzio iluna eta zurruna, irakasle ernegatu eta autoritarioz betea, ikasleak zigorpean beldurrez edukitzen dituztenak eta zentzurik gabeko zerrendak loritoen moduan ikastera behartzen dituztenak.

Eskola mota hori, baina, antzina desagertu zen gure artean, zorionez. Alabaina, hezkuntzaren errealitatea oraindik ere halakoa bailitzan, horren alternatiba izan behar luketen berrikuntzak proposatzen dira aspalditik eta etengabe, beste eskola-eredu baten bila: irekiago, libreago, gizartearekin lotuago... Zer lortu nahi da, ordea, proposamen-zaparrada horrekin?

Tere Maldonadok, urte askotako ofizioak dakarren esperientziaz eta bizitza osoko irakurketa eta hausnarketek ematen duten aberastasunaz, saiakera ausart eta mamitsu bat ondu du, txalo errazetik ihesi, guztiok pentsatzera gonbidatu nahi gaituena.

Gaiari zabaletik helduz, gaurko moda pedagogiko askoren erro anti-ilustratuak aztertzeari ekin dio lehenik, baita 68ko maiatzak izandako eragin sakonak ere, ezkerren zati handi bat, asmorik onenaz, neoliberalismoari eta kapitalismoari interesatzen zaizkien ikuspegiak gogotsu onartzera eraman dutenak.

Askatasunaz, biraketa emozionalaz, helduzentrismoaz, publikoaz eta pribatuaz, berdintasunaz eta diferentziaz, ikasleen tratamendu indibidualaz, mugak ezartzeaz eta lausotzeaz... Gai anitzez ari da egilea, zorrotz eta zehatz, polemikari itzuri gabe baina bere iritziak errespetuz adieraziz eta bibliografia oparo batean oinarrituz.

Maila: C1

Urtea: 2025

Orr: 300

Prezioa: 20 - 19,55 €



ESNATU ALA HIL – EUSKARAREN ORAINA ETA GEROA, DIAGNOSTIKO BATEN ARGITAN

Garikoitz Goikoetxea, Iñaki Iurrebaso

Noraez moduko bat sumatzen da euskalgintzan azken urteotan: euskararen indarberritze-prozesuak beste bultzada bat behar duela, baina zantzu gutxi dago urratsak non-nola egin. Badira esaten dutenak euskararen aldeko grina moteldu egin dela, lo antzean dagoela. Etsipen edo ilunaldi bat ere badago: azken hamarkadetan egindako ahaleginak ez duela ekarri espero izandako –edo amestutako– emaitzarik, batez ere erabilerari dagokionez. Aldartearen edo autoestimua ikuspegitik, ez dira euskalgintzaren garairik distiratsuenak.

Esnatze baten premia agerikoa da: astindu bat, urrats handiagoak, bestelako lan-ildoak. Orain artekoarekin honaino iritsi gara; aurrera egiteko, hori baino gehiago behar da.

Nola ari gara? Norantz ari gara? Sarritan, iritzi-uste hutsetan oinarritutako balorazioak egin ohi dira euskararen egoerari buruz, norbere sentsazioei soilik erreparatuta. Horiek gutxietsi gabe, baina, euskararen etorkizuneko indarberritze-prozesua irudikatzeko, ezinbestekoa da egoerari eta bilakaerari buruzko oinarri sendoa izatea, zer gertatzen ari den ondo ikustea.

Euskararen indarberritze-prozesuaren momentu giltzarri honetan, hizkuntza-larrialdiaz eta euskararen bidegurutzeaz hainbeste hitz egiten den garaiotan, ekarpen bat egin nahi du liburu honek: beste betaurreko batzuekin begiratu nahi diogu euskararen egoerari, ikuspegi demo-linguistikoa oinarrituz eta hizkuntzaren osasunari buruzko aldagai nagusiak aztertuz.

Datozen hamarkadetako bidea irudikatzeko, ezinbestekoa da begiak irekitzea: euskararen bilakaera eta egoera zein diren ohartzea.

Euskararen biharko ametsak esnatzea eskatzen baitu gaur. Horretarako helduleku izan nahi du liburu honek: begirada argitzeko tresna.

Maila: C1 **Urtea:** 2025 **Orr:** 272 **Prezioa:** 22 - 18,70 €



ARIAN A1.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~28,25~~ - 24 €



ARIAN A1.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~16,50~~ - 14 €



ARIAN A1.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~28,25~~ - 24 €



ARIAN A1.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~16,50~~ - 14 €



ARIAN A2.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN A2.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



ARIAN A2.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN A2.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €




ARIAN B1.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~28,25~~ - 24 €



ARIAN B1.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



ARIAN B1.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN B1.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



ARIAN B2.1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~24,75~~ - 21 €



ARIAN B2.1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~18,75~~ - 15,95 €



ARIAN B2.2 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN B2.2 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~18,75~~ - 15,95 €



ARIAN C1 IKASLEAREN LIBURUA

Prezioa: ~~30,25~~ - 25,70 €



ARIAN C1 LAN-KOADERNOA

Prezioa: ~~21,25~~ - 18 €



TANGO NOIZEAN BEHIN

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Malena au pair gisa etorri da Buenos Aiestik Euskal Herriko kostaldeko familia batera, haurrak zaindu eta etxeko lanak egitearen truke euskara ikastera. Familia horretan dagoen denboraldian, hainbat jenderekin harremanak izango ditu, batzuk atseginak eta beste batzuk mingotsak, eta aspaldi-aspaldi Argentinara joan zen birraitonaren baserria ezagutzeko aukera ere izango du.

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



OTSOA

Josu Lartategi / Pedro J. Colombo (il.)

Otsoa lasai bizi da bere mendi eta zelaietan, elikagaia eskuratu eta familia zainduz. Otsoaren mundura etsai bat heldu da: gizakia. Eta gizakia etsai beldurgarria eta krudela da. Baina zer gertatuko da borroka horretan otsoa ere beldurgarria eta krudela denean? Nor nagusituko ote da?

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 62 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



BORROKALARI ARGITSUAK

Miren Agur Meabe Plaza / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Zenbait emakumeren eta horien lagunen, bikotekideen, senideen... arteko harremanen berri ematen digu Borrokalaria argitsuak izeneko liburu honek. Gaur egun, gure inguruko edozein tokitan aurki ditzakegu antzeko bizimodu nekoso eta korapilatsuak. Hala ere, pertsonaia guztiak dira borrokalaria: aurrera egin nahi dute, bakoitzak bere bizitza menderatzeko.

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




SIBERIAKO LOREA

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Andre zaharraren bizitza lasaia da. Bat-batean, norbaitek dei mehatxugarriak egingo dizkio. Telefono-dei horiek edozein ordutan izaten dira. Lehengo lasaitasuna infernu bihurtu da. Emakume gaztearen bizitza etorkizunik gabekoa da. Lan nekagarria egiten du telefonía-enpresa batean: ordu asko eta diru gutxi. Baina itxaropen eskaseko bizitza hori gotik behera aldatu da.

Maila: A1 **Urtea:** 2012 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



NAIA CHINATOWN INGURUAN

Alvaro Rabeli / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Naia neska gaztea ez da Archer detektibe famatua, ez da Los Angeles-en edo New York hirian bizi. Naia gure artean bizi da, hemengoa da, titaniozko museoaren ondoan ibiltzen da egunero. Naia emakume langilea eta ikaslea da. Naia hirikoa da, gaurko kultura anitzeko hirian bizi da. Naiak ez du detektibe bokaziorik, baina lan egin behar du bizimodua ateratzeko. Naia zinema beltza da. Naia gure bizitzaren itsasgora eta itsasbehera da. Naiak guk bezala sufritzen du, maitatzen du. Naia Chinatown da, Jack Nicholson gabe.

Maila: A1 **Urtea:** 2013 **Orr:** 76 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



MALETA BAT IGOGAILUAN

Andoni Tolosa "Morau", "Mattin" (il.)

Hectorrek A1 maila egin du euskaltegian eta ikasturte osoa egunerokoan jaso du. Oso pozik dago Hector: lagun berriak egin ditu eta kalean euskaraz hitz egiten hasi da. Biba! Baina ikasturtea ez da beti samurra izan: urduritasuna, poza, lotsa, frustrazioa, harrotasuna, haserrea, maitasuna... emozio-festa da euskaltegia! Eta eguneroko hau, euskaltegitik bizirik ateratzeko formula.

Maila: A1 **Urtea:** 2022 **Orr:** 92 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



OIHENARTEA EZ HUNKI

Bea Salaberri / Adur Larrea (il)


Peiok Oihenartea etxaldean du bizitokia eta lana. Maite du laborari-lana, lurra, natura eta Baigorriko bizimodua. Bere ametsa da horrela bizitzea: zoriontsu da gustuko bizimoduan, maite duen familiarekin eta lagunekin. Baina bat-batean Peio desagertu da.

Non da? Zer gertatu zaio? Peioren desagertze misterioitsuak kezka sortu du.

Gainera Oihenartea etxaldea ere arriskuan da.

Oihenartea ez hunki istorioak misterioa eta elkartasuna lotzen ditu, eta egungo Ipar Euskal Herria eta espekulazioaren arazoaren errealitatea agertzen ditu.

Maila: A1 **Urtea:** 2023 **Orr:** 92 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




KRESALAREN TABERNA

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Emakume batek taberna bat zabaldu du hondartzan, aldi berri bat hasi nahi duelako. Banatuta dago eta ez dauka haurrik, soilik etorkizun zehazgabe bat. Zer da zoriona? Nola onartu bakardadea? Non geratzen dira okerrak? Horiek dira bere galderatako batzuk itsasoari begiratzen dionean, urtaroz urtaro. Bizitzak, mareak bezala, asko kendu dio, baina agian asko ekarriko oraindik ere.

Maila: A1 **Urtea:** 2017 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




NAIA ETA ESKULTORE ITSUA

Alvaro Rabelli / Pedro J. Colombo (il.)

Kaleko prostituta batzuk hilda agertu dira errepide-bazterretan. Heriotza horien atzean pertsonen trafikoko deitoragarria eta aberastasunaren paradisuak aurkitu ez duten etorkinen bizimodu latza daude. Baina, heriotza horietan zerbait gehiago ere ezkutatzen da, zerbait iluna eta ankerra, Andre de Toth zuzendariaren House of wax (1953) filmean bezala. Naia detektibe gazteak eta bere laguntzaile Margotek argitu beharko dute.

Maila: A1 **Urtea:** 2018 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ZULOAN BARRENA

Josu Lartategi / Susanna Martin (il.)


BERRIA

Udako goiz epela da. Goxo nago eguzkitan, egonean, baina ibiltzera joango naiz, beti bezala. Gosalduta, emazteari agur esan eta abiatu naiz mendian gora. Halako batean, azeri bat ikusi dut kobazulo batean sartzen, eta azeriaren atzetik sartu naiz ni ere. Baina kobazuloan ez dago azeriaren arrastorik. Berrirori kanpora irten naiz. Orduan, sekulako oihuak entzun ditut:

—Geldi! Altxa eskuak!

Soldadu bi dira. Baina, zer gertatzen ari da? Film bat da, txantxa bat, amesgaiztoa? Ez naiz lo geratu... ala bai?

Maila: A1 **Urtea:** 2024 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ATZAPAR ARRASTOAK

John Landon / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Hiru bat metro izango zen altu munstro hura. Gelako sabairaino iristen zen. Begi handi beltzei eta moko luzeari begiratu zien Larryk. Hegazti-mokoa zuen munstroak, baina hegorik ez. Besoak zituen soinetik zintzilik, luzeak eta iletsuak. Eskuetan eta oinetan, berriz, atzapar handiak zituen, gorriorriak. -Atzapar horiek lau lagun hil dizkirate-esan zuen ahots batek.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 74 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




KATU BELTZA

John Milne / Kepa Orbe Ferreiro (il.)

Ekintzaz betetako detektibe-istorio moderno honen 7 protagonista Salahadin el Nur polizia inspektorea da. Poliziaren barnean, Antzinateko Ondasunen Sailean egiten du lan. Egipton dagoen europar arkeologo bat hilda agertu ondoren, balio handikoa den estatua txiki bat berreskuratzeko ikerketak hasten ditu Salahadinek. Laster jarriko da nazioarteko kontrabandista-talde baten arrastoaren atzetik.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



NAIA INDIA GORRIETAN

Alvaro Rabelli Yanguas / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Papiroflexia biltzar batera gonbidatuta zegoen gizon bat desagertu egin da ezustean. Haren maitaleak arrastoa galdu du. Naia detektibe gazteak eta Margot laguntzaileak lanak izango dituzte gizona aurkitzen. Hiriko ilunpe ezezagunetara eramango ditu kasuak bi neskak, baina lur azpira ere; hiri honetako aspaldiko india gorrietara, hain zuzen ere.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ZISNEA ETA UHARTEA

Miren Agur Meabe Plaza / Iñaki G. Holgado (il.)

Kerman Mendizabalek bere historia kontatzen digu. Gaztea zenean, Eguzki lore hotelean lan egiten zuen. Behin, Aste Santuko oporretan, Julia ezagutu zuen eta une bereziak bizi izan zituzten; adibidez, uhartera egindako txangoa. Egun haietan, hain zuzen ere, bitxi-lapurretak gertatu ziren Bilbon, eta polizia hotelerraino heldu zen, galdezka. Egoera larritu egingo da Kermanentzat. Juliak ere alde egingo du. Orain, berrogei urte igaro eta gero...

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



GEMINIKO NEBULOSA

Josu Lartategi Yustos / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misteriotso bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

Maila: A2 **Urtea:** 2013 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



LEGARRAREN DESAGERPENA

Miren Gorrotxategi /Manu Ortega

Telmo Legarra polizia ohia herrira itzuli da, desagertutako alabaren bila hamar urtez Europan barrena ibili ostean. Etsita itzuli da, baina herrian aztarna berriak topatu ditu: Nahia desagertu aurreko Gabonetan ateratako argazki misteriotsoak Aulezti anaiak jarri ditu susmopean. Polizia-senari eutsi ezinik, berriro ekin dio ikerketari. Oraingoan aurkituko ote du Nahia?

Maila: A2 **Urtea:** 2021 **Orr:** 76 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €




DAKOTA ERAIKINEAN

Estibaliz Vivanco / Dani Maiz

Deiene Aketxetak New Yorkeko Guggenheim museoan lan-praktikak egiteko gonbite-mezua jaso du. Birritan pentsatu gabe, mezuari baietz erantzun dio. Baina gau horretan bertan, loak hartu ezinik ibili da. Erabaki ona hartu ote du? Ethan Whitefeather Guggenheimeko lan-harremanen arduraduna ezagutzean, gorputzaldi txarra berrituko zaio. Gainera, Markus bekadun-kidea Dakota eraikinari buruzko lana egiten ari da, eta Deienek eraikin enigmatikoaren misterioan sartuta ikusiko du bere burua.

Maila: A2 **Urtea:** 2021 **Orr:** 76 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ISTANBULEN ELKARTUKO GARA

Richard Chisholm / Alex Orbe Ferreiro (il.)

Han egon zen pixka batean Tom kale erdian, etxe ilun eta isil hari begira. - Anjela! - esan zuen poliki bere artean-. Anjela! Non arraio zaude? Handik metro gutxitara, gabardina grisdun gizona zegoen, atari ilun batean gordeta, Tomi begira. Haren mugimendu guztiak arretaz segitzen zituen... Antso kapitainari misio sekretua agindu diote Eurasiako Konfederazioko agintariek: Marteko Hidra basera zama misteriotso bat eramatea. Bilbopolis megahiria atzean utzi eta, Hermes espaziontzian, bidaiari ekingo dio kapitainak. Marte planetan, ordea, ezuste ugari izango ditu. Aurkikuntza harrigarri batek munduaren eta bizitzaren ikuspegia aldatuko dio.

Maila: A2 **Urtea:** 2014 **Orr:** 88 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



TXIMELETAK

Miren Agur Meabe / Iñaki Holgado (il.)

Neska txikia jaio denean, amari tximeleta zuria pausatu zaio bularrean. Sei urterekin, tximeleta more bat marraztu du amabitxiarentzat, baina hego bat falta zaio. Zergatik? Geroago, abade batek min izugarria emango dio, eta neska txikiari tximeleta munstroak agertuko zaizkio ametsetan. Etxea erre orduko, tximeleta arreak ikusiko ditu...

Tximeletek beti lagunduko diote, une goxoetan eta latzetan. Batzuetan, neska txikiak bera ere tximeleta dela pentsatuko du. Eta badaki argiak hil egiten dituela tximeletak, baina norberaren eraldaketaren sinboloa ere badirela.

Maila: A2

Urtea: 2016

Orr: 68

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



PUZZLE BAT OSATZEKO MODUAK

Andoni Tolosa, Mattin (il.)

Ariketak egin, akatsak zuzendu, misterioak argitu, ikaskide berriak ezagutu... Euskaltegiko A2 maila gramatika eta lexikoa baino askoz gehiago izan da Hectorrentzat, eta egunerokoan jaso ditu ikasturteko bizipen guztiak. Iazko ikasturtetik gauza asko aldatu dira: ikaskideak, ikasgelako dinamika, harremanak... Batzuetan, euskaldun sentitu da Hector; beste batzuetan, estralurtar. Baina zer polita den euskaltegiko unibertsoa!

Maila: A2

Urtea: 2025

Orr: 72

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



ELURRAREN PROMESA


Miren Agur Meabe Plaza, Iñaki Landa (il.)

Inesek jabetxe batean lan egiten du asteburuetan. Arte Ederretako ikaslea da eta tatuajeak gustatzen zaizkio. Larunbat gau batean istripua izango du bizikletarekin, elurraren erruz. Esnatzean, hala ere, Erdi Aroan aurkituko da eta Inexa izango da denentzat.

Nola itzuli etxera? Nola itzuli XXI. mendera?

Bizitza oso bat pasatu beharko du mundu zahar horretan, zorion eta zoritxarren artean, urteko lehen elurrak berriz ere...

Maila: B1 **Urtea:** 2022 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



IZU-ISTORIOAK

Bram Stoker / Pedro J. Colombo Lopez (il.)

"Drakula" bezalako izu-istorioak idazten maisu izan zenaren hiru istorio: - Epailearen Etxea - Burdinazko Emaztegaia - Abel Behenaren itzulera Mendekua da gai nagusia eta hirurak dira misteriozkoak eta hotzikara ematen duten horietakoak.

Maila: B1 **Urtea:** 2014 **Orr:** 64 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



ENIGMAK

Georges Simeon / Bruno Hidalgo Garcia (il.)

Sei detektibe-istorio labur, Frantziako hainbat eskualdetan eta ingurune ezberdinetan kokatuak: G. 7, Altzariak mugitzen zituen mamua, Gorpua desagertu, Hans Peter, Monceau parkeko sutea eta Desagertuen gaztelua.

Maila: B1 **Urtea:** 2014 **Orr:** 72 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



PINKY PAILAZOA

Josu Lartategi Yustos / Alex Orbe Ferreiro (i.)

Kanadaren eta Estatu Batuen arteko baso zabal eta ilunek sekretua gordetzen dute. Nor da Pinky pailazoa? Nola desagerrarazten ditu ume bakartiak? Zer da, bahitzai lea ala hiltzailea? Zergatik egiten ditu halako gaiztakeriak? Richard Smith inspektoreak pista bat du, eta pista horrek Euskal Herrira eramango du.

Maila: B1 **Urtea:** 2014 **Orr:** 88 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



TITARE BETE ZORION

Miren Agur Meabe Plaza / Enrique Morente Luque (il.)

Juanek eta Mariak elkar ezagutu dute. Juan maisu erretiratua da, eta Maria, jostuna. Elkarrekin bizitzen jarriko dira, oroitzapenak eta asmoak partekatzeko. Hala ere, garbi dute oraina dela garrantzitsuena. Konpromiso bakarra, batak besteari zorion apur bat ematea. Baina Juan gaixotu egingo da.

Maila: B1 **Urtea:** 2014 **Orr:** 88 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



INFERNURANTZ

Estibaliz Vivanco / Aritz Eiguren (il.)

Columbia Unibertsitateko Tom Bradford irakaslea 16 ustekabeen hil eta gero, Gabriel Pritchardek hildako lagunak sortutako CUMAE fundazioa ezagutuko du, Beatrice alargunaren eskutik. Aurkikuntza horrek hainbat ezusteko ekarriko dizkio Gabrieli, eta haren amesgaizto guztiak egia bihurtuko dira.

Maila: B1

Urtea: 2015

Orr: 88

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



AITANA MENDIAREN AFERA

Miren GORROTXATEGI/ Manu ORTEGA (Il.)

Telmo Legarra Pariseko teilatupeko gela txiki batean bizi da, herritik urruti eta bakar-bakarrik. Aitana Mendia andre euskaldun misterioitsuak lana eskaini dioenean, polizia ohiak ezin izan dio ezetz esan: dirua behar du, eta, gainera, Aitana herrikidea izateaz gain, emakume erakargarria da. Baina zergatik ez du poliziarengana jo? Zer ezkutatzen du afera honek?

Maila: B1

Urtea: 2024

Orr: 72

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



MARATON - ATHLETICEN HISTORIA EZBERDIN BAT

Lutxo Egia / Paul Caballero (il.)

Athleticen historia jokalarri handien izenez abiatzen da: Pichichi, Zarra, Iribar... edo, zergatik ez, Aduriz. Athleticen historia hori klubak berak argitaratutako liburuetan ikas dezakegu. Gure istorioa (eta Athleticen historiaren zati txiki bat), ordea, Bilboko San Francisco auzoan hasten da 1925ean eta emakume bat du protagonista: Sara Estevez 'Maraton'.

Maila: B1 **Urtea:** 2016 **Orr:** 60 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



DORIAN GRAYREN ERRETRATUA

Oscar Wilde / Paul Caballero (il.)

—A, bai, zoriontsu gaudenean, beti izaten gara zintzoak, baina zintzoak garenean, ez gara beti zoriontsuak.

Lord Henryren hitz zorrotz eta arriskutsuek mundu beldurgarri batera eraman zuten Dorian Gray gaztea; mundu hartan garrantzitsuagoa zen ederra izatea, zintzoa izatea baino; mundu hartan edozer barkatzen zen, hilketa ere bai, afalostean jendeari barre eragiteko modukoa izanez gero behintzat.

Maila: B1 **Urtea:** 2017 **Orr:** 68 **Prezioa:** ~~14,40~~ - 12,25 €



HISTORIA ALA ISTORIOA?

Nagore Irazustaberrena / Ruth Juan (il.)

Napoleon handia gizon txikia al zen benetan? Zein da erpuua gora keinuaren egiazko esanahia? Egia al da piratek altxorrak lurperatzen zituztela? Nork asmatu zuen gillotina? ...


Historiarekin jolas egiteko irakurgaia duzu esku artean: gertakizun historikoen bi bertsio proposatzen dira, irakurleak asmatzeko bietako zein den zuzena, non dagoen historia eta non istorioa.

Maila: B1

Urtea: 2018

Orr: 79

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



BAIONA

Bea Salaberri / Asisko eta Dom


Baiona ezagutzeko gida da hau: hiriaren aztarnategiek erakusten duten antzinako Baiona zaharrean hasi eta egun sortzen ari diren auzo berrietaraino. Asteburuko ibilbidean bisitatuko ditugu Baionako karrika nabigagarriak, eraikin ikusgarriak, naturguneak, ostatuak, merkatuak, harresiak... eta baionesak! Baionako jende euskalduna.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



BILBO

Lurxo Egia / Asisko Eta Dom

Bilbon barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Orain kale bat, gero zubi bat, hurrena historia puska bat... hiriko eskulturen inbentarioa eginez abiatuko du gidariak ibilbidea Bilboko baldosetan barrena, hiri zahar, bizi eta erakargarria eraikiz, bilbotarren bizipenen bitartez.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



DONIBANE GARAZI

Nora Arbelbide Lete / Asisko eta Dom


Historia eta kondairaz betetako hiria da Donibane Garazi gida honetan: euskara plazara jalgiaza zuena, Nafarroako hiriburua hau ere, gerraosteko iheslerien aterpea, negozioarako hirigunea, bidaiarien eta historiaren bidegurutzea... Eta bai, Donibane Garazi ederra ere bada, polit-polita, zinez ikusgarria, harri gorritaz eraikia, mendiarte leunaren babesean.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



DONOSTIA

Nerea Auzmendi / Asisko eta Dom


Donostian bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Hiria ezagutzera datozen biloba gazteei izeba donostiarrak egindako ibilbidea. Tabakalerako terrazan abiatuko da, eta Sokamuturra kalekkan bukatu, Loretopera begira. Gune eta zoko baketsuen hiria proposatzen digu, jendetza zalapartatsutik ihesi.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



GASTEIZ

Patxi Zubizarreta / Asisko eta Dom


Gasteizen barrena bisita gidatua egiteko proposamena da hau. Gidariak Gipuzkoatik iritsitako lagun-taldearekin batera korrituko ditu Gasteizko kaleak, eraikinak, parkeak, plazak, artelanak, hilerriak, tabernak, museoak, auzoak, historia puskak eta istorio osoak. Asteburu bakarrean hiri berdea goitik behera ezagutzeko aukera eskaintzen digu.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



IRUÑEA

Enrike Diez de Ulzurrun / Asisko eta Dom


Iruñea entzutean, berehala Sanferminak etortzen zaizkigu gogora. Baina Iruñeak beste gauza asko ere baditu jaiez gain, eta horietako batzuk biltzen ditu gida honek. Ibilbide bat proposatzen du kalez kale, plazaz plaza, txokoz txoko denetarikoko kontuak azalduta, bertakoentzat zein bisitarientzat jakingarriak, eta askotan, ezezagunak.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



MAULE LEXTARRE

Allande Sokarros / Asisko eta Dom


Euskal Herrian ekialdeena dagoen hiriburua da Maule-Lextarre, tamainaz txikia, historia eta nortasun handikoa. Zer ziren zinbiteak? Nor da Matalaz? Non da Laminen etxea? Eta ur hotza eta epela batera ematen dituen Laminen iturria? Egun bakarrean burutzeko ibilbidean, lehengo eta egungo Maule-Lextarrerren argazki hurbila jasoko dugu, eta Zuberoan barrena egiteko itzuli polita ezagutuko.

Maila: B1

Urtea: 2019

Orr: 64

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



APAIZ GERRILLARIAREN EZKUTALEKUA

Ander Izagirre / Maite Mutuberria (il.)

Aramaioko mendietan badago sarrera estuko kobazulo bat, azeriak bakarrik sartzeko modukoa. Hantxe ezkutatu zen apaiz gerrillaria, afusilatu nahi zutenengandik ihesi. Kobazuloa ezagutuko dugu, baita Euskal Herriko beste bederatzi txoko eta sekretu ere: erromatarren meatzeak, munstro ehiztarien etxeak, dinosauroak suntsitu zituen meteoritoaren errautsak, Erdi Aroko mezu harrigarriak.

Maila: B2

Orr: 88

Prezioa: ~~14,40~~ - 12,25 €



LAMIA

Josu Lartategi

Lamiak euskal pertsonaia mitologikoak dira. Kontakizun honetan lamia gazte baten ibilaldia ezagutuko duzu. Kostaldeitik barrualdera joango da, kaio baten laguntzaz, erreka garbiei zerbait oso arraroa gertatzen ari zaielako: urek kolore gorria dute. Zergatik aldatu da uren kolorea? Zer gertatzen zaie errekei? Lamiak misterioa argitu nahi du. Horretarako, ez da bakarrik ibiliko, ez horixe! Lagun berezi-berezi batzuen laguntza izango du.

Istorio honetan beste garai batean sartuko zara, garai zaharra, antzinakoa, eta pertsonaia mitologikoak ezagutuko dituzu: Tartalo, Galtzagorri, lpotxak, Herensugeak...

Maila: A1.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €



ASTEROIDEA

Zaharren Egoitza leku lasaia da, lasaiegia. Bertan, zaharrek bizitza egiten dute. Hiltzeko oso denbora gutxi falta zaiela uste dute eta horregatik ez daukate itxaropen handirik etorkizunean. Nahikoa da telebista ikustea, jatea, trikotatzea, paseotxoak egitea, lo egitea... eta berriz ere dena errepikatzea. Bisitak ere badituzte, baina oso gutxitan, senideak ez direlako ia inoiz zaharrekin gogoratzen.

Egun batean, ordea, telebistak berri harrigarria eman du: asteroide erraldoia dator lurraren kontra eta munduaren azkena izango da. Une horretatik aurrera, bizitza erabat aldatuko da Zaharren Egoitzako lau atso-agurentzat, Antontxu, Mikela, Boni eta Eukenirentzat.

Maila: A2.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €



BALEA

Josu Lartategi

Baleak, planeta honetako animalia handienak, arriskuan daude. Azkenak irla bakari batean bizi dira. Bertan jolastu eta amets egiten dute, bertan maitatu eta atseden hartu. Arriskua, hala ere, oso hurbil dute, arrantzaileak haien bila doazelako... eta gizakien odol-egarriak ez du mugarik. Baleak ondo dakite hori; horregatik, azken bidaiari ekingo diote. Urrunera joango dira, oso urrunera. Istorio honetan Haundi eta Pott izeneko baleak ezagutuko dituzu: balea zaharra eta balekumea. Horiek izango dira protagonista, kapitain krudel batekin batera. Baleak eta gizakiak aurrez aurre...

Maila: A2.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €



ATEJOLEA ETA IZAKI MISTERIOTSUA Beldurrezko ipuinak

Aitor Arana

Beldurrezko bi ipuin

Beldurra. Zer da beldurra?

Izaki misteriotsuen istorio beldurgarriak benetakoak ote dira?

Beharbada ez, eta gure beldurrek sortzen dituzte.

Edo beharbada gure desiren irrikek.

Baina kontuz, beharbada bene-benetakoak dira.

Eta egunen batean mamu bat zure logelan sartu nahian ibiliko da.

Edo beharbada zure desirak betetzeko aukera duzu,

baina hori ez da zuk uste bezain ona...

Bi istorio beldurgarri hauetan bezala.

Maila: A2-B1

Urtea: 2017

Orr: 80

Prezioa: ~~15~~ - 12,75 €



ERDI AROKO EGUNAK

Laida Martinez


Bilbo hiribildu bihurtu zeneko aroan kokatu du Laida Martinezek bere eleberria. Fikziozko lana da, baina pisu handia dute garaiko gertakari historikoek. Bestek beste, portuko gorabeherak eta Diego Lopez de Haro eta Maria Lopez de Haro pertsonaiak agertzen dira nobelan.

Maila: B1

Urtea: 2016

Orr: 96

Prezioa: 15 - 12,75 €



IXTEBE PELLOT AZKEN KORTSARIOA

Fernando Morillo Grande


Bizitza batzuk zailak dira sinesten. Hain dira ausart, noble, umoretsu, nekaezinak, existitu daitezkeenik ere ezin dugu ia sinetsi. Baina hor dugu Ixtebe Pellot, azken kortsarioa. Itsas-borroka etengabean, askotan hartu zuten preso. Arriskuz arrisku, sekula etsi gabe, beti egin zuen ihes. Musika eta dantza maite zituen, eta karkaraz erantzuten zion minari. Begietara begiratzen zuen. Horregatik maite zuten lagunek. Baita etsaiek ere! Hemen kontatuko dena benetakoa da, sinesgaitza iruditu arren. Prestatu. Norbait aparta ezagutzeko zorian zaude: Ixtebe Pellot, Euskal Azeria.

Maila: B1

Urtea: 2016

Orr: 72

Prezioa: 15 - 12,75 €



AMAIA UDALEKUETAN

Onintze Goitiz

Gaztetxoentzako abentura liburua ondu du Goitizek, eta Irakurketa Errazeko lanen artean kaleratu Gauminek. Amaia da protagonista: jaiotzez gorra, eta gurasoek gehiegi babesten dute. Ikasturte amaieran, udalekuetara joatekoak dira haren lagunak; Amaiak ere joan nahi du, gurasoen baimenik ez badu ere.

Maila: B1

Urtea: 2015

Orr: 62

Prezioa: ~~15~~- 12,75 €



RIF MENDIETAKO URA

Montse Flores Pallarès

Ahmed gaztea Rubi-n bizi da, Bartzelonatik gertu, baina marokoarra da izatez, Rif-ekoa. Tati klasekide erakargarriaz maitemindu da bere bizitzan lehendabizikoz. Celes bere lagunak kamera bat lapurtzeko eskatu dio. Ahmeden anaia zaharrena atxilotze-zentro batean da, lapurtzeagatik, eta berak tentazio horri aurre egin nahi dio. Marokoko ohiturak eta familia kontuak ere ezagutuko ditugu Ahmeden abenturan.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 64

Prezioa: ~~15~~- 12,75 €



TXERNOBIL TXIKI BAT ETXE BAKOITZEAN

Ander Izagire


Txernobilgo istripu nuklearra gertatu zenean, Juliak 13 urte zeuzkan eta aire librean jolasean ibili zen egun osoan. Igorrek 28 urte zeuzkan, soldadua zen eta zentralera lanera korrika joateko agindu zioten. Inork ez zien azalpenik eman. Orain Juliak erreportaje bat idatzi nahi du, Txernobilaren zer gertatu zen eta gaur egun ingurua nola dagoen kontatzeko. Igorri eskatu dio laguntza, katastrofearen garaiaz biek dituzten oroitzapenak biltzeko eta, Txernobil bisitatzen duten bitartean, ondoan lagun bat izateko.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 80

Prezioa: ~~15~~- 12,75 €



SANTIAGO BIDEAREN MISTERIOA

Fernando Morillo


Diotenez, Santiago Bideak magia egin dezake ibiltari bakoitzaren baitan. Ulises marinel zaharra da. Bere itsasontzia hondoratu zenean, bera bakarrik atera zen bizirik, eta beldurra hartu zion bizitzari. Kemen, berriz, mutil gaztea eta irribarretsua da. Itxuraz, ezin zoriontsuagoa, bizitzaz eta bere neska-lagunaz maitemindua. Biak elkartuko dira Santiago Bidean, bakoitzak duen promesa sekretua betetzeko asmoz.

Maila: B1

Urtea: 2014

Orr: 80

Prezioa: ~~15~~ - 12,75 €



MUSEOKO HILTZAILEA

Josu Lartategi

Nork mehatxatu du eskultorea? Nork hil nahi du eta zergatik? Luigik laguntza eskatu dio Martin Iriberrri ikertzaileari. Diruz txarto zabiltzanean ezin diozu lan-eskaintza bati ezetz esan, nahiz eta etsai batena izan. Horixe gertatu zaio Martini. Lan erraza dirudi hasieran. Sakonago ikertzen hasi denean, orde, ulertzen ez dituen gauza gehiegi dagoela konturatu da. Istorio beltz honetan Bilbon zehar ibiliko zara, Martin Iriberrri ikertzaile pribatuarekin. Galtzaileen eta irabazleen hiri horretan edozer gertatu ahal da, baita hilketa ikaragarriena ere.

Maila: B1.2

Urtea: 2016

Orr: 48

Prezioa: ~~6,95~~ - 5,90 €

ZURE EGUNEROKO IRAKURGAIA BERRIAN

Euskara ikasteko prozesuetan, funtsezkoa da egunero zerbait irakurtzea euskaraz. BERRIAN egunero topatuko dituzu askotariko gaiak, tarte batez irakurketan murgiltzeko. Egunkaria irakurri ez ezik ekonomikoki babesten baduzu, proiektuaren etorkizuna bermatuko duzu. Egizu ekarpena, eta jaso BERRIAren botila opari.



ABANTAILAK:

- **Parte hartzea:** BERRIAlagunek iruzkinak egin ditzakete artikuluetan.
- **Edukien aurrerapena:** hurrengo eguneko albisteak irakurtzeko aukera dute, irakurle guztientzat argitaratu baino lehen.
- **PDFan irakurtzea:** BERRIAren papereko edizioa irakurtzeko modua dute egunero.
- **BERRIAberri buletina:** BERRIA taldearen azken albisteak jasotzen dituzte hilero, posta elektronikoz.
- **Zozketak eta deskontuak:** opariak eta sarrerak irabazteko aukera dute, eta deskontuak dituzte produktu, zerbitzu eta ekitaldi batzuetarako.
- **Esperientzia eskusiboak:** BERRIAlagunentzat propio antolatzen diren ekitaldietan parte har dezakete.



www.berria.eus/lankidetzak.html

